

ARANTZAZU'ko BATZARRA TA ATXEA

Noizean bein, eta sarritan, eltzen jakuz argazkiz ugaritutako agirien iekiak eta aspaldion darabilt idazpuruak iragarten dauan gai oneri buruz olako bat ZER'en agiritegian. Irakurleentzat jakingarria dala-koan idazki orren laburpena ta egoikitze-lana egingo dot.

Euskaltzaindiak Leioa'n egin eban XIII batzar nagusian "Euskera Batuaren Filosofia" idazpurua eban itzaldi bat egin eban Luis Villasante'k. Itzaldi orren une baten h'ak Arantzazu'n sortu eban nastea gogoratu eta aztertu eban izlariak.

Izki isil edo mutu orrek sortu eban Arantzazu' n nas-terik aundiena, naizta Mitxelenak aurkeztu ebar agi-rian ain garrantzitsua izan ez arazoa.

Mitxelenak Arantzazu'ra joan baiño lenago batzar bat egin ei eban Donostia' n ango euskalzale batzuket eta bera h'aren alde agertuko zala Arantzazu'n esan eutsen. Laster zabaldu zan barria eta izki orren arerioak aurka jokatzeko gertu agertu ziran.

Arerio ziranak jokabide bat gertatu eben: al ba'da, itzi ez gaia batzarrean aztertzen, astirik ez egoalako edo beste agiri batzuk be irakurri bear ziralako, eta ori ezin lortu izan ezkerro, aurrez-aurre ekin h'aren aurka.

Zer nai ete eban Mitxelenak arazo ori aurretiaz ira-garriaz?

Gaia plazaratzea, zalantza barik, eta bein baten atxea bai ala atxea ez eztabaidak amaitu.

Beste elburu bat be izan eikean: naste aundi bat sortu gizartean, orrelan alde batetik eta bestetik ziran zioak argitaratzeko eta euskaldun geiago euskereari buruz arduratuta ikusteko. Lortu be egin eban ori. Eta gaur orduan baiño be biziago dago arazoa.

* * *

Eldu zan batzar eguna eta uste eban lez jazo ziran gauzak: Agiria irakurten asi zanerako, mai-burutik gel-ditzeko agindua artu eban, beste arazo batzuk be azter-tu bear ziralako. Koldo'k erantzun zorrotza emon eban: Bere gai au egitarauan egoala eta besteak ez, eta berak jarraitzeko eskubidea eukala. Jarraitu egin eban eta amaitu be bai.

Orduan, aurretiaz erabagita egoan lez, arerioak sen-do erantzun eutsoen eta eztabaida gogorra sortu zan. Egoaldeko euskaldunak ez ekien atxea noiz erabilli eta

non sartu. Iparraldekoak izki ori erabilten ba'ekien, baiña geiegi sartzen ebalako ustea egoan.

Orduan iparraldeko euskalduna dan Pierre Lafitte idazle ospetsuak egin eban berba eta euren euskerea galtzera doala eta euren idazkerari ez oratzeko eskatu eban. Urpera doan itxas-ontzira iñor sartzen ez dan an-tzera. Eurak Iparraldean erabilten jarraituko eben, bai-ña ainbeste naste sortzen dauan iskia oba ez artu egoal-dean.

Zelan artu zan batzar aretan Laffite'ren aolkua?

Erantzuna iñok uste ez ebana izan zan: Iparraldeko euskaldun gizajoak be euskaldunak dirala, geu lez, eta euren euskerea be artu egin bear zala bizirik aurrera ateratzeko. Eta geienak h'aren alde jarri ei ziran.

Zori txarrez iñoz artu bear izan ez zan h'a erruki utsez artu zan eta izkuntzaren legeak eta erabilteko bear dan erreztasunak debekatzen dauana, bioz bigu-nak baieztu eban.

Ona da erukia eta guztiz ona iparraldeko anaiak aintzat artzea, baiña lenagoko gauzea da euskerea bide onetik aurrera eroatea. Orregaitik, erabagiak zuzentze-ko iñoz berandu ez dan lez, burruka au aurrera doala eta joango dala ikusirik, eldu dala uste dogu euskeratik atxea alboratzeko ordua. Erabilli dagiela iparraldeko euskaldunak bear daben eta onurragarri jaken neurrian, baiña itzi daiskuela egoaldekoai geure euskerea erreza-go biurtzen.

Nok kendu bear dauan euskerearen idazkeratik h'a?

Ba, ipiñi dauanak berak eta gero idazle guztiak.

Mesede aundi bat egingo dautsagu euskereari bide ori artzen ba'dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek

